



e-Liburutegia

Liburu digitalen mailegua



Liburu digitalak behera kargatzeko eta irakurtzeko erabiltzailearen eskuliburua





Apple (iOS) gailuak

Eman beharreko urratsak:

1. Adoberen ID bat sortu
2. BlueFire Reader programa instalatu
3. Eskatu liburu bat maileguan eta BlueFire Reader programaren bidez ireki



1. urratsa: Adoberen ID bat sortu

1. Adoberen ID bat lortzeko ekin helbide honetatik:
<http://www.adobe.com/es/account/sign-in.adobedotcom.html>
2. Egin klik «**Adoberen ID bat lortu**» botoian:

3. Bete formularioa eta gogoan gorde posta elektronikoaren helbidea eta sortutako pasahitza. «Irakurri dut eta erabilera-baldintzak eta pribatasun-politika onartzen ditut» laukia markatu. Egin klik «Erregistratu» laukian.
4. Zure Adobe IDa formularioan idatzitako posta elektronikoaren helbidea da. Gorde helbide hori eta sortutako pasahitza. Biak ala biak beharko dituzu softwarea eta liburu digitalak irakurtzeko erabiliko dituzun gailuak konfiguratzeko.






2.urratsa: BlueFire Reader programa instalatu

1.Zure gailuaren hasierako pantailatik jo App Store-ra.




2.Bilatu Bluefire Reader eta egin klik emaitzean. "Doan" botoia sakatu eta jarraian Instalatu botoian.





2.urratsa: BlueFire Reader programa instalatzea

3. Behin instalazioa osatu, egin klik “Ireki” botoian aplikazioa hasteko.
5. Aplikazioa irekitzen denean, sar ezazu zure Adoberen IDa (posta elektronikoko helbidea) eta zure erabiltzaile izena sortzerakoan aukeratu duzun pasahitza. Ondoren, egin klik Baimendu botoian.





3. urratsa: Liburu bat maileguan eskatzea y BlueFire Reader programan irekitzea

1. Ireki zure nabigatzailea eta jo **Liburuklik** atarira : <http://www.liburuklik.euskadi.net>. Bertan, **e-Liburutegia** atalera joan, eta aurkitu maileguan hartu nahi duzun liburua.
2. Behin gustuko liburua aukeratuta, egin klik haren azalean. Liburuaren deskribapen-fitxara heldu zara. «Mailegatu» botoia sakatu eta zure nortasuna egiaztatzeko pantailara helduko zara. Gogoan izan erabili beharreko erabiltzaile-izena eta pasahitza Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Sarean erabili ohi dituzunak direla.





3. urratsa: Liburu bat maileguan eskatzea eta BlueFire Reader programaren bitartez irekitzea

3. Behin identifikatutakoan, «Liburuak deskargatu» aukeratu mailegua egiteko. Ez ahaztu **e-Liburutegia** erabiltzeko Arauak irakurtzea.
4. Deskarga onartuz gero BlueFire programa irekiko da automatikoki eta zure liburuaz gozatzeko aukera izango duzu.

